

Euskal Herria Ardatz Atlantikoa bultzatzeko elkartean sartu da

Garapen ekonomikoa lortzeko helburuarekin eratu zen atzo elkarte berria


Atzo eratu zen Coimbran (Portugal) Ardatz Atlantikoa bultzatzeko Eskualde interesatuen Elkarteak. Euskal Herriaren partaidetza duen elkartearen helburua zonalde honen garapen ekonomikoa bultzatzea litzateke.

COIMBRA

Euskal Herriarekin batera, Portugalgo bi eskualde, Estatu frantseko Poitou, Charentes, Akitania eta Erdialdeko eskualdea eta Estatu espainiarreko Castilla-León, Madrid eta Galizia dira elkarte berriaren sortzaile eta partaideak.

Lurralde hauen halburu ekonomikoa lortzeko asmoz, atzoko bileran garapen eta enpresen kokapena bultzatzeko hiru ardatz nagusiren inguruan lan egitea erabaki zuten elkarte kideek. Komunikazio azpiegiturak hobetu, ikerketa eta garapen teknologikoa bultzatu eta profesionalen formazioa aurrera eramatea azpimarratu zituzten ekintza ezberdinen abiapuntu garrantzitsu bezala.

Coimbran bildutako lurralde hauetako ordezkarien esanetan, hiru puntu hauek Ardatz Atlantikoan kokatzen diren herrialdeetako enpresen inguru teknologikoa hobetzeko elkarlanaren oinarria izan behar dute.



EAE teknologi ikerkuntzarako arduradun izendatu du elkarte berriak.

EUROPAKO EGITARAUEN LAGUNTZA Gainera, elkarteak partaideek proposaturiko ekimenak Europako Komunitateko (EK) 'Recite' egitarauaren laguntza izango du. Egitarau honen helburua, gizarte eta ekonomi loturak sendotu eta elkarlanerako nazioarte mailako sareak eratzen laguntzea da.

Coimbran egindako lehen bilera honetan, hiru milioi ekuko aurrekontuaren aurrerapena onartu zen. Dirutza honi EKtik jasotzea espero diren laguntzak gehitu behar zaizkio.

Era berean, barne araudiaren proiektua ere onartu zen atzokoan. Honen arabera, Aholkularitza Kon-

teilu Nagusiaren funtzionamendua zehazten da eta bioteknologia, fabrikazio teknologia aurreratua eta material berrien inguruko ikerketa bideak onartu ziren. EAE dagokionez, fabrikazio teknologian oinarritutako hamar proiektu aurkeztu zituen. Gasteizko Gobernuaren teknologi zentruen laguntza izan dute proiektuek eta honegatik fabrikazio teknologia aurreratuaren arduradun jarri zuten EAE. EAE garapen teknologikoan 'eskualde liderra' izendatua izan zen eta Jaurilaritzako Industria saileko Teknologia eta berrikuntzarako sailburu ordean Agiriano Aholkularitza Kontseiluko lehendakari izendatu zuten.

Atzo 40 lagunek Donapaleun EDFen egoitza hartu zuten

L.E. / BAIONA

Atzo goizean 40 lagun sartu ziren Donapaleun, EDF, argindarra banatzen duen Sozietate Nazionalaren egoitzara, honek eskualdean dituen bulego eta zerbitzuen desagertzea salatzen. Amikuzeko Geroa elkarteak bideratu ekintzak goizeko 8etarik 10.30ak arte iraun zuen. Istilurik gabe iragan ziren denak.

Maiatzaren 17an, Baionako EDFen egoitzara joan ziren 40 lagun, talde berekoak, buruzagitzarekin hitzegiteko, eta hori ezin izan zuten lortu. Aldi honetan ere saiatu dira

Baionako arduradunarekin hitzegtien. Hau ezin lortuz, Ortesekoarekin mintzatu dira. Egun hauetan itxi beharra da Donapaleuko EDFen bulegoa, 10 enplegu herriari gal eraziz.

EDFek dioenez, «zerbitzuaren hobekuntza» lortuko ditu birmoldaketa baten bidez. Amikuzeko Geroa elkarteak, aldiz, zerbitzu publiko bat galtzea salatu du, «desertu bilakatzeko prozesua» agerian emanez. Bestalde, Aduanako zerbitzuek herritik joan behar dute laster. Abere hiltokia eta Spavia enpresaren egoera larriak lotuz EDFen joateari, eskualde guztiaren ekonomia egoera larrian da.



Langileak EDFren bulegoen desagertzearen aurka mobilizatu ziren.

Bilboko Portuan berehalakoan hasiko dira zabalketa lanekin

BILBO

Bilboko Portuko arduradunak, akordio batera iritsi dira, Garraio eta Herri Lan Ministeritzarekin, aspalditik geldituta zegoen portua zabaltzeko proiektua berehala martxan jartzeko. Akordioan erabaki dutenez, Bilboko Portua izango da, obra hauen kostua osotasunean bere gain hartuko duena nahiz eta horretarako kanpo zorretan sartu behar izan, eta Ministeritzak abal moduan jokatu du, lanak bukatuko direla bermatzeko.


Hau dela eta, kanpokaldeko Abraren zabalketa lanak, berehala adjudikatzekoak dira, eta ziurrenik, urriaren 6rako deituta dagoen Portuko administrazio kontseiluaren bileran erabakiko da, obrak nori eman. Hala ere, gerta daiteke kontseilu bilera aurreratzea, dagoeneko xehetasun guztiak erabakita bait daude, eta Portuko agintariak lehenbailehen amaitu nahi dute tramitea.

Bilboko portuak, finantzaketaren ardura oso bere gain hartzea, izan da neurri handi batean, portuan egin beharreko lanen proiektu-

tua, sartuta zegoen zulotik atera duena, orain arte horixe izan bait da punturik arazotsuena, Portuko arduradunaren eta Ministeritzaren artean. Alde horretatik, Garraio eta Herri Lan Ministeritzak, aurrekontuekin arazo larriak dituela argudiatu izan du beti.

Hala ere, eta nahiz eta finantzaketaren pisu guztia euren gain hartu, Manuel Docampo, aurrez aipaturiko portuko lehendakariak, obren gastuak ordaindu daitetzkeela adierazi zuen atzo. «Gure iritzi, portua zabaltzeak eragingo dituen gastuak ordaintzeko adinako ondasunak sor ditzakegu», esan zuen hitzez hitz Docampo.

Portua zabaltzeko lanek sei urte iraungo dute gutxi gorabehera, eta orain arte bost enpresa agertu dira prest obrak euren gain hartzeko. Enpresa hauek egindako eskaintzen arabera, 34.000 milioi pezetakoa (1.700 milioi libera), izango da lanen batezbesteko kostua. Portuko arduradunek iragarri dutenez, lanak hartuko dituen enpresaren lehenengo lanak, aurtengo abenduan hasiko dira.



Astilleros del Nervión untziolako langileek ez dute maiatzetik kobratu.

ARN egoera larrian SESBekin egindako kontratua dela medio

BILBO

Astilleros Reunidos del Nervion (ARN), enpresa bizkaitarra, iragandako maiatzetik ordainketa suspentsio egoeran dago, 1987an Soviet Batasunarekin sinatutako kontratu baten ondorioz, arazo ugari bait dituzte kontratuan erabakitako diru kopurua jasotzeko. Gainera, eta ARNko arduradunek adierazi dutenez, herrialde honetan gertatutako azken gertakizunek, larriagotu egin dute egoera.

Egoera larri horren oinarria ARN enpresa, hasierako kontratuaren gehigarri diren 1.740 milioi pezeta (87 milioi libera) jasotzeko izaten ari den zailtasunetan dago, azken gertakizunen ondorioz ez bait du SESBen erantzule egokirik aurkitzen. Horrela, enpresa untzigileak, kontratuan erabakitako zortzi untzietatik azken hirurak ematean jaso nahi du dirua, eta bestela oraindik bere eskutan dituen bost untziak ez emateko

mehatxua egin du. ARNko arduradunek aitortu dutenez, neurri horren bidez bakarrik berma daiteke enpresa eta langileen egoerari irtenbiderik ematea. «Oraindik gure eskutan dauzkagun untziak ez ematea da une honetan daukagun arma bakarra, eta ondorioz, enpresa eta langileen interesak defendatzeko bide bakarra», adierazi dute ARNko zuzendaritzatik.

Bizkaiko enpresa untzigilea, duela lau urte, hau da, arazo guztiak sortu dituen kontratua sinatu zuten, SESBen salmenta gehien egiten zituen enpresa euskalduna izatera iritsi zen, eta Espainian ere ez zuen inork parekatzen. Horrela, teknologia aurreratuak zortzi untzi ziren enpresa honek egin beharrekoak, 26.900 milioi pezetaren (1.345 milioi libera) truke, baina bi aldeek egindako hasierako kontratuaren berrikusketaren ondoren, salneurria 1.760 milioi pezetatan (88 milioi libera) igotzea erabaki zuten.

Tele Lan proiektua bultzatzen ari dira Zuberoan

M. ESTEBAN / MAULE

Duela hilabete gutxi, Mauleko ADES, Zuberoako Ekonomi Garapenaren Aldeko Elkarteak, Tele Lan enpresaren xedea aztertzen hasi zen. Xedean, ADESein Baionako Merkatal Ganbarako Sistemen eta Logizial Institutua, France Telecom eta Pabeko Elf Aquitaine hartzen dute parte.

Tele Lan xedean, Zuberoari beste lan mota bat ekartzea helburu dute proiektuaren ordezkariak. Erran daiteke Tele Lanekin langileek etxetik edo edozein tokitik lan egiteko parada ukango dutela.

ADESeko ordezkariak Credit Agricole bankuarekin harremanak dituzte: Zuberoatik Akitaniako txeeen kudeaketa egin liteke. Iduriz beste sozietate handientzat azpitratatzeak egin litezke.

Lan mota hau, emakumei bereziki irekia izango da, zeren Zuberoan emakumeen langabezia % 65ekoa bait da. Baionako Merkatal Ganbarako Sistemen eta Logizial Institutua (IDLS), xedearen tekniko arazoak ikertzen ari da.